anboto

TOKIKOM

2011ko apirilaren 8a
10. urtea - 411 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri |3|
Urki Hegoaldeko lotura egiteko lanak hiru enpresaren artean gauzatuko dituzte

Berbaz |8|
D. Maeztu: "Gobernu taldearen aldetik, epe ertain-luzerako plangintza bota dugu faltan"

Kultura |14|
Munduko Kontalariak jaialdia, apirilaren 15ean, Durango, Berriz eta Elorrion

Euskara izar gidari, Durangaldea gauez zeharkatuko du Korrikak

> Mallabitik sartu eta Elorriotik irtengo da, Eguaztenetik eguenerako goizaldean

> Aurretik, eguazten eguerdian, Korrika Txikiak hartuko ditu eskualdeko kaleak

2

Kepa Aginako

Zilar Astea 2011: 80ko hamarkada Durangon

Durango• Hainbat kultur taldek, ikastetxek, norbanakok eta erakundek antolatuta, 80ko hamarkadako Durango hobeto ezagutzeko aukera eskainiko du Zilar Asteak, apirilaren 12tik 16ra. Mahai-ingurua, ikuskizuna, dokumentala... Hainbat kultur adierazpenen bitartez izango da hamarkada "sortzaile, ekintzaile eta eraikitzaile; bizi eta emankor" hartara hurreratzeko modua.

11

Electricidad Pujanaren Instalazio Berria 1964tik zerbitzua ematen

PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea
48200 DURANGO
Tel.: 605 705 818

Jaurlaritzaren arabera, eskolako lanak legalak dira

Atxondo• Eskola eraikitzen hasi diren lursaila udalarena dela dioten dokumentuak bidali dituzte asteon Hezkuntza Sailera, eta honek "dokumentazioa ondo dagoela" erantzun die, David Cobos alkatearen esanetan. Beraz, obrekin jarraitzeko eskari formala egingo dio Udalak Jaurlaritzari.

7

Datozen asteetan herritarrei azalduko diete Plan Orokorra

Mallabia• Udalak herritar, elkarte, sindikatu eta alderdien parte-hartzeagaz gorpuztu gura du Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Aitor Loiola alkateak prentsaurrekoan jakinarazi duenez, hurrengo domeka bietan herrigunean panelak ipini eta Kultur Etxean batzar informatiboak deituko dituzte.

6

Igoera fasean izateko urrats handia eman dezake Kulturalak

KIROLA • Durangoko Kulturala eta Beasain neurtuko dira asteburuan Tabiran; bestela esanda, sailkapeneko laugarrena eta bosgarrena aurrez aurre. Irabazita, zortzi puntuko aldea hartuko luke Kulturalak; galduz gero, Beasain orpoz orpo jarriko litzaioke.

16

K.A.

• **Otxandio**
Askotariko ekintzak antolatu dituzte biharko Udaberri Jaian 4

• **Durangaldea**
Iurreta eta Durangon hileta zibilen gaineko ordenantza onartuta 3

• **Elorrio**
Abokatu bik genero ikuspegiko duda legalak argituko dituzte 4

HERRIRIK HERRI

DURANGALDEA

Eguen goizaldean itzarrik itxarongo dio Durangaldeak 17. Korrikari

01:33an sartuko da euskararen aldeko lasterketa Mallabian, eta Elorriotik irtengo du 04:39an

Tipi-tapa, tipi-tapa... atzo hasi zituen bere lehenengo kilometroak 17. Korrikak, eta Durangaldera eguenean helduko da. Loguragaz edo afalosteko jaigiroa luzatuta, Korrikari ondoetorria goizaldean emango dio gure eskualdeak. Lasterketaren aurretik eta ondoren hainbat ekintza antolatu dituzte herrietan. Ikastetxeetan ere petoak prestatzen jardun dute Korrika Txikirako.

Eguaztenean Korrika etorri aurreko orduetan giroa berotzeko hainbat ekitaldi egingo da. Durangon, 19:00etan, triki-poteoa hasiko dute, Abarrak euskaltegian elkartuta. 21:00etan bertso afaria egingo dute Txantonesan; gaur da azkeneko eguna sarrerak erosteko. 01:00etan lekukoa eroango dutenek argazkia aterako dute Andra Mariko elizpean; 02:50ean helduko da Korrika Durangora.

Korrika pasatu aurreko orduak girotzeko poteoak, afariak eta kultur ekitaldiak antolatu dituzte eskualdean

Duela urte bi Durangon jende askok parte hartu zuen Korrikan.

Berrizen, 19:30ean, *Buah Txabal!* bakarrizketa saioa eskainiko dute kultur etxe zaharrean, eta 20:30ean triki-poteoa hasiko dute Olakuetatik. 21:30ean kantu afaria izango da Toki-Onan.

Elorrion berakatz-zopa banatuko dute arineketan egin eta gero, 05:30ean

Iurretan, 19:00etan, eskaladaren gaineko *Psicoblock* emanaldia izango da Ibarretxen, eta Zaldibarren Olazar egoitzan kantu afarirako batuko dira 21:30ean. Txartelak salgai daude Karobin, Paulan eta Herrikon. Elorrion, arineketan egin eta gero, berakatz-zopa eskainiko dute Alkartun.

Amaiera jaia

Hilaren 17an Donostian emango ditu azken pausuak Korrikak. Amaierako jairako autobusa ipini du AEK-k: Durangotik irtengo du Madalenan 09:15ean. Elorriotik eta Berriztik ere pasatuko da. Txartelak eskualdeko euskaltegietan erosi daitezke. ■ A.Ugalde

IBILBIDEA

Mallabia	01:37
Zaldibar	01:50
Berriz	02:06
Abadiño (Traña)	02:33
Durango	02:50
Iurreta	03:13
Durango	03:32
Abadiño	03:38
Atxondo	04:15
Elorrio	04:39

KORRIKA TXIKIAK

Abadiño
Eguaztenean 14:30ean
250 ume

Traña-Matienan
Eguaztenean
15:00etan 393 ume

Atxondo
Barikuan 14:30ean
80 ume

Berriz
Eguaztenean 14:30ean
320 ume

Durango
Martitzenean 15:00etan
800 ume

Elorrio
Eguaztenean 14:45ean
550 ume

Iurreta
Eguaztenean 14:30ean
275 ume

Zaldibar
Barikuan 10:30ean
240 ume

Alba Gutierrez da EBren Durangoko hautagaia

Ezker Batuak Durangaldean aurkeztuko dituen hautagaien aurkezpena egin du. Durangon urte eta erdi ordezkari barik egon da Ezker Batua, 2009ko azaroan, arrazoi pertsonalak medio, Sabino Bilbaok kargua utzi zuenetik. Maiatzean Alba Gutierrez 24 urteko zornotzarra aurkeztuko dute; gizarteratze ikasketak egin ditu eta adin txikikoen hezitzaile lanetan dihardu gaur egun.

Amorebieta-Etxanon Vicente Julian Silva aurkeztuko dute hautagai, Iurretan Jose Luis Zubillaga eta Abadiñon Jose Luis Pérez. ■ J.D.

Durangalderako alkategaiak aurkeztu ditu EAJk

Durangalderako aukeratutako alkategaiak aurkeztu ditu EAJk. Azaldu dutenez, jeltzaleen helburua gaur egun dituzten alkatetzak mantentzea eta beste udal talde batzuen eskuetan daudenak berreskuratzea da.

Joan zen barikuan Iurretako Ibarretxe kultur etxean elkartu ziren hautagai guztiak, eta bakoitzak 100 segundu izan zituen garatu gura dituzten egitasmoak eta lehentasunak azaltzeko. Durango, Iurreta, Abadiño, Elorrio, Atxondo, Zaldibar, Mañaria, Izurtza, Garai, Otxandio, Berriz eta Mallabiko hautagaiek ez eze, Ermua eta Zornotzakoak ere parte hartu zuten. ■ A.B./A.U.

Oporrak Bakean kanpaina abian, ume saharauiak etxean hartzeko

Tindufeko errefuxiatu kanpalekuetan bizi diren umeak etxean hartzeko kanpaina hasi dute Durangon eta Elorrion. Durangon Herria elkartearen tabernan daude eskabide orriak eskuragai, eta maiatzaren 8a arte egongo da eskabidea egiteko aukera. Elorrion, apirilaren 20a baino lehenago egin beharko da, udaletxean. Berrizen ere datozen asteotan hasiko dute kanpaina.

Errefuxiatu kanpamentuetako girotik irten eta umeek Euskal Herrian bi hilabetez osasun baldintza hobeetan bizitzea da Oporrak Bakean programaren helburua. Udan 50ºC inguruko beroa izaten dute Saharan, eta horretaz gainera, ur eta janari arazoak ere izaten dituzte. ■ A.U.

Harrobi izandako guneak leheneratzeko Jaurlaritzaren asmoa

Bertan behera utzitako harrobiak berreskuratzeko proiektuak idazteko laguntza eskainiko dute

Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak, 2011ko aurrekontuetan, "bertan behera utzitako EAEko harrobiak berreskuratzeko plana eta eratorritako jardunak" garatzeko 488.200 eurogaz hornitutako atala sortu duela jakinarazi du.

Durangaldean azken urteetan bertan behera utzita dauden harrobi izandako guneak "berreskuratzeko proiektuak gauzatzeko" baliatu ahal izango da Industria Sailaren diru-laguntza.

Diru-atal horregaz, besteak beste, "bertan behera utzitako harrobiak identifikatzea, berreskuratzeko jardun-irizpideak zehaztea eta proiektuak idazteko laguntza ematea" aurreikusten duela eman du Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak jakitera.

Atxarte harrobia izandakoa leheneratzeko baliabideak eskaini ditzakeela-eta, Industria Sailaren ekimena oso begi onez hartu du Abadiñoko alkateak. ■ I.E.

Lehenengoz emango dute harrobiak leheneratzeko laguntza.

DURANGO

Maristak ikastetxea finalista IX. RecoAlcoa lehiaketan

Enpresa baten simulazioa lantzen egon dira azken lau hileotan

RetoAlcoa lehiaketako finalera heldutako ikasle taldea.

Madrilen (Espainia) gaur ospatuko den IX. RetoAlcoa lehiaketako finalera heltzea lortu du Mª Jose Martin eta Kepa Bastegieta irakasleek zuzendutako Maristak ikastetxeko taldeak.

Lehiaketan parte hartu dutenek enpresa bat simulatu dute; fabrikazio prozesua, I+G, marketinga eta enpresa munduko bestelako gai batzuk kontutan hartuta. RetoAlcoa programan enpresen simulazioa ondoen egiten duena saritzen dute.

Maristak ikastetxeko ikasleen hiru taldek parte hartu dute, eta 61 hezkuntza zentrotan banatutako 4.900 ikasle batu ditu lehiaketak aurtengo edizioan.

Lau hilabetean jardun dute lanean, eta finalean beste zazpi taldegaz lehiatuko dira gaur: A Coruñako (Galizia) Sabon eta Adormideras; Lugoko (Galizia) Rio Cabe eta Foz; Asturiasko Menendez Pidal eta Paula Frassinetti; eta Madrilgo San Luis de los Franceses ikastetxeekin.

Lehiaketan 61 hezkuntza zentrotako 4.900 ikaslek hartu dute parte

Maristetatik jakin eragin dutenez, atzo *Habilidades para el éxito* egitasmoan parte hartu zuten Madrilen dauden ikasleek. Enpresa handietako adituek berbaldia eskaini zieten; "euren esperientzien gainean eta premiazko trebetasunen gainean ikasteko aukera izan dute". ■ A.B./A.U.

Hileta zibilen ordenantzak Durangon eta Iurretan

Iurretan EB-Berdeaken ekimenez onartu du araudia udalak; Durangon, Aralarrek proposatuta

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantzak onartu berri dituzte Iurreta eta Durangoko udalbatzarrek.

Bi udalerrietan hileta zibiletarako gordetako espazioak erabili ahalko dituzte horrela gura dutenek; Iurretan Ibarretxe kulturetxeko areto nagusia eta pleno aretoa gorde dituzte horretarako, eta Durangon, Elkartegiko areto nagusia utziko du udalak.

Iurretan, EB-Berdeak taldearen ekimenez egin du aurrera udal araudi berriak. Durangon, berriz, Aralarrek aurkeztutako mozioa landu eta gero onartu dute, aho batez. Iurretan PSE-EEko zinegotziak eta Fernando Borja abstenitu egin ziren bozketan. ■ A.B./A.U.

Urki-Hegoalde lotuneko lanak esleitu dituzte

Tabiratik Montorretako biribilgunerako errepidea egiteko beharrek hiru urte iraungo dute

Durangoko herrigunean trafikoa arintzeko eraztuna amaitzeko Urki-Hegoalde lotunea hiru enpresen artean egingo dutela jakinarazi dute asteon. Probisa, Bermeoso eta Eder enpresei esleitu dizkiete lanak, eta udalaren aurtengo inbertsio handienetakoa izango da: 781.154,97 euroko kostua izango du. Beharrak hiru zatitan eta hiru urtetan banatuko dituzte. Aste gutxi barru kontratua sinatu eta lanak hasiko dituzte.

PSE-EEk salatu du kontraturako baldintzetan ez direla herriko langabetuak kontutan hartu

Durangoko PSE-EEko kideek gogoratu dute proiektu hori 2010eko aurrekontuak babesteko "baldintza moduan" ipini zutela. EAJgaz egindako akordioa gobernu taldeak ez duela "guztiz" bete salatu dute orain: "Horrelako beharretarako Durangoko langabetuak kontratatzen dituztenei puntuazio altuagoa emateko eskatzen genuen orduan, eta esleipen honetan ez da horrelakorik egin". Udalak "herrian enplegua sustatzeko aukera galdu" duela salatu du Pilar Riosek. ■ A.U.

ELORRIO

Abokatu bik aholkularitza juridikoa eskainiko dute kalean, genero ikuspegitik

Lan arloko eskubideen berri eman eta zalantzak argituko dituzte

Eszedentziak, bajak, zaintzarako lan-uzteak, jubilazioa, alarguntasun pentsioa... Horrelako eskubideen gaineko aholkuak emango dituzte abokatu bik, datorren astean, Elorrioko kaleetan. *Eskubideak bertatik bertara* da ekimenaren izena, eta udaleko Berdintasun Sailak antolatuta genero ikuspegia duten abokatuak etorriko dira. Martitzenean anbulategi alboko jolas parkean izango dira, 17:00etatik 19:00etara, eta barikuan, berriz, plazan, ordutegi berdinagaz.

Zuenbide gaiak "arrotzak eta zailak " egiten zaizkie emakume askori, eta arlo horiek gerturatzea da ekimenaren helburuetako bat. "Eskubideak ezagutzen ez baditugu ezin ditugu praktikan ipini", azaldu du Maitane Iribar berdintasun teknikariak: "Eskubideak ezagutzeaz gainera, horiek gauzatzeko tresnak eta baliabideak zeintzuk diren azalduko dute aholkulariek".

Lan munduan, "batez ere amatasuna tartean denean", emakumeek diskriminazioa jasaten dutela nabarmendu du Iribarrek. Emakumeak eta gizonak animatu gura ditu teknikariak; ekimenaren helburuetako bat "gizonek aitatasunaz hausnartzea eta etxeko lanak eta umeen zaintza partekatzea" ere badela adierazi du.

Martitzenean eta eguenean jardungo dute, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara

'Eskubideak bertatik bertara' ekimenagaz zuzenbide gaiak hurreratu gura dituzte emakume zein gizonengana

Emakume Eskolatik

Legeei buruzko ikastaroa Emakume Eskolaren barruan antolatu zutenean "harrera oso ona" izan zuela azaldu du Maitane Iribarrek: "Horregatik, ekimena herrira zabaltzea erabaki dugu". Zuzenbide gaietara gerturatu eta emakumeek formazio hori edukitzea garrantzitsua dela nabarmendu du berdintasun teknikariak.

Aholkularitza juridikoa "sindikatuetako kideentzat, enpresetako arduradunentzat edo interesa duen edonorentzat baliagarria" izan daitekeela adierazi du Iribarrek. ■ A.Ugalde.

OTXANDIO

Udaberri Jaiagaz goizetik gauera arteko festa bihar

Su honek bidaben hauspue garelako, eraixonk lemapean eratu du egitaraua Gazte Asanbladak

Otxandiok Udaberri Jaiaren edizio berri bat ospatuko du zapatu honetan. Urtero Gazte Asanbladak antolatzen duen ekimena da biharkoa, dagoeneko erreferentzia dena herrian. Goizean plazan hasiko dute egitaraua, futbito txapelketako azken faseagaz. Joan zen zapatuan jokatu zituzten kanporaketak, mozorro eta guzti, umore onean.

Eguerdiko 13:00etan plater lehiaketa egingo dute lehenengoz; bertan prestatutakoa 15:00etako bazkarirako aprobetxatuko dute. Arratsaldean, 18:00etan hasita, rally-poteoan ibiliko dira, tabernaz taberna. 20:00etan Bahituak taldearen kontzertua izango da Gaztetxean, eta 22:30ean Murger Pink eta Akerbeltzegaz jarraituko du jaiak plazan. ■ M.O.

Iazko Udaberri Jaiko bazkariko irudia.

Elorrioko Ahotsak, herri hizkera gorde eta mantentzeko prest

Herriko 32 pertsona nagusigaz grabazioak egin ditu Badihardugu elkarteak

Udaletxeko pleno aretoan aurkeztu zituzten grabazioak joan zen astean.

Elorrioko berbakera aztertzeko ikerketa egiten dabil Badihardugu euskara elkartea, eta joan zen astean,ikerketa horretarako egin dituen hainbat grabaketa aurkeztu zituen. Herriko 32 pertsona nagusi elkarrizketatu dituzte Badihardugu kideek, eta euren bizipenez eta Elorrioko lehengo ohiturez galdetu diete.

Herri hizkerak batzen dituen *Ahotsak.com* ataria kudeatzen du Badihardugu. Arinago ere Elorrioko pertsona nagusien testigantzak egon dira Interneteko atari horretan, baina orain, udalak aginduta ikerketa egiten dabiltzanez, elkarrizketa gehiago egin dituzte eta idatziz edo bideoz ikusi daitezke batzuk. Herriko euskararen eta historiaren parte dira. ■ A.U.

IZURTZA

Ordenamendu berrituaren idazketa maiatzerako

Otsail amaierako herri galdeketaren emaitzak aintzat hartuta, orain hilabete inguru ekin zion ordenamenduaren berridazketa burutzen diharduen jakintzaalor anitzeko taldeak plan berria idazteari. Asteon azaldu digutenez, maiatzean itxaroten dute ordenamendu berrituaren proposamena udalean aurkeztu eta behin-behinean onartzea.

Prozesu guztia jarraitu duen Aholku Batzordeak herri galdeketaren emaitzak aintzat hartzeko konpromisoa hartu zuten; Ezker Abertzaleko gobernuak ere hartu zuen konpromiso hori, martxoko udalbatzarrean. Berez, galdeketa legez loteslea izan ez arren, galdeketatik ondorioztaturiko irizpideen arabera jarduteko konpromisoa hartu zuen udal gobernuak. ■ I.E.

GARAI

26 lagunek eman dute izena sukaldaritza ikastaroan

Apirilaren 26an hasiko da Trumoitte kultur elkarteak antolatutako sukaldaritza ikastaroa, eta, aurreratu digutenez, 26 lagunek eman dute izena bertan parte hartzeko. Martxoan zehar egon da apuntatzeko aukera.

Kopurua ikusita, antolatzaileak bi talde sortzea aztertzen dabiltza

Juantxu Larruzea sukaldariak gidatuko du ikastaroa, oinarrizko sukaldaritzaren gainean. Otea-Loran elkartean izango dira saioak; antolatzaileak bi talde sortzea aztertzen dabiltza, eta bakoitzak 10 saio egingo lituzke. Gehienak garaitarrak izan arren, kanpoko jendeak ere eman du izena. ■ M.O.

Hortz Klinika
Ekoden

ZX-27 kristalezko inplanteen sistema iraultzailea



sistema honi esker, ez da ebakuntzarik egin behar,
eta protesi finkoa eraman daiteke, hezurrik eduki ez arren

www.hypodent.sk/en/zx_27.html

Arkotxa, 4 - Etxabea • 48200 DURANGO
Tel.: 94 621 78 22
www.clinicaekoden.com

EZ GARA FRANKIZIA
GURE ARDURAPEAN ZAUDE

P.P.S. 262/07

MALLABIA

Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren proposamena kaleratuko du udalak

Aholku batzordeko ondorioak jendarteratu gura dituzte egunotan

Aitor Loiola alkateak azaldu duenez, datorren legegintzaldian onartuko litzateke plana.

Herri "bizia eta bizigarria" izan gura du Mallabiak. Datozen 10 urteetarako balioko duen Hiri Antolamendurako Plan Nagusia erredaktatzeko hainbat irizpide erabili dituzte: herriaren identitatea eta egitura mantentzea, mugikortasun iraunkorra bultzatzea, garapen jasangarriaren aldeko apustua egitea eta sektore sozio-ekonomikoen arteko garapen orekaturen aldeko apustua egitea jaso dituzte, esate baterako, egitasmoan.

Eguneko zentroa zabaltzea eta elizako arkupea bilgune bihurtzea gura dute

Planean hainbat lehentasun markatu dituzte. Herrigunea zabaltzea aurreikusi dute, Kalbario, Roke Deuna eta etorkizunean Askaldea eremuetan etxebizitzak eraikiz. Industriguneetarako, Debabarreneko LZPak 70 hektareako zabalpena aurreikusten du. Udalak 7,29koa ezarri gura du; Aitor Loiolak adierazi duenez, "proposamen errealistagoa" da, hazkunde hori "kontrolatua" izan behar dela uste dutelako. Ekipamenduei dagokienez, nagusientzako eguneko zentroa zabaltzea eta elizako arkupea babesgune zein kultur ekitaldietarako bilgune bihurtzea leudeke. Mugikortasunaren gainean, Mallabarrenan disuasio-aparkalekua egitea eta bertan autobus geltokia jartzea aurreikusten dute. Tren geltokia beharrezkotzat dute, eta Trabakuko pasabidea ere bai; azken hori Batzar Nagusietan onartuta baina oraindio egiteko dago.

Disuasio-aparkalekua eta autobus geltokia aurreikusi dituzte Mallabarrenan

Parte-hartzea

Udalak herritar, elkarte, sindikatu eta alderdien parte-hartzeagaz eta adostasunagaz osatu gura du plana. Datozen bi domeketan panelak ipiniko ditu herrigunean, eta Interneten ere eskura daude txosten eta plano guztiak. Gainera, batzar informatiboak antolatu dituzte Kultur Etxean hilaren 7an, 12an eta 19an, hirurak 19:00etan. ■ M.Onaindia.

BERRIZ

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa martxan

2011ko Sanpedro eta Santaisabel jaiak iragartzeko kartelaren oinarriak aurkeztu ditu udalak. Azaldu dutenez, edonork parte hartu dezake, eta gura adina lan aurkeztu, gainera.

Maiatzaren 13an amaituko da lanak entregatzeko epea; Berrizko liburutegira eroan beharko dituzte parte-hartzaileek. Lanok, euskarri digitalean –Photoshop programagaz bateragarria dena– zein zurrunean aurkeztu beharko dira. 60x40 zentimetro izango ditu kartelak, neurriei dagokienez.

Sari nagusi bi emango dituzte, irabazlerantzat eta herriko onenarentzat

Epaimahaiak maiatzaren 24an emango du jakitera bere erabakia

Sari nagusi bi emango ditu udalak lehiaketan: 400 eurokoa lan irabazlearentzat, eta 150 eurokoa herriko parte-hartzaile onenarentzat. Epaimahaia jai batzordeak osatuko du, eta erabakia maiatzaren 24an emango dute jakitera. ■ M.O.

IURRETA

1,7 milioi bideratuko dituzte ur-hornidura sarea hobetzera

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak 10 urtera begira plangintza osatu du, eta udalak gauzatuko du

Herriko bigarren mailako ur hornidura sarea berregiteko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren 10 urtera begirako plangintza onartu du udalak (1,7 milioi euro). Partzuergoak eta udalak 2008an sinatutako hitzarmenaren baitan landu du azken horrek 40 urtetik gora dauzkaten 2. mailako tutuak birjartzeko helburuagaz; beti ere, horien egoera eta materialak horrela egitea justifikatuz gero.

Mallabienako eta Arriandiko bidegurutzeko hobekuntza lanak eginak ditu udalak, eta Orozketako ur hornikuntza sareagaz lotutako lanen lehenengo zatiagaz ere hasi dira: sare berria egingo dute, Durangoko sarea komunikatzen duen kutxatilatik Gibelako biltegira, Santa Apoloniako industria poligonotik. Biltegi hori handiago batega-tik (50 m3) ordeztuko dute.

Sareak 3,7 kilometroko bidea egingo du eta zati bitan gauzatuko dute: Orozketako bideko kutxatilatik Saratxuena baserri ingururaino doa, eta hortik Gibelaraino. Biltegi berria Santiagoko biltegiraino joango den banaketa-hodiagaz lotuko dute eta hori bizileku bakoitzeraino doan sareagaz lotu. Guztira, 650.000 euroko inbertituko dituzte. Aurten, 305.000 euro erabiliko ditu udalak. Bigarren zatia 2012an gauzatuko dute.

Aisiarako udal ortuak

Kontsumo propiorako lurra landu eta fruituak jasotzeko espazio publiko bat eskainiz, ortua eskuratzeko aukera zabalik da orain-dik, apirilaren 15a arte: geratzen diren 10 partzeletako bat hartu gura duenak udal bulegoetara jo dezake edo 94 620 12 00 telefonora deitu. ■ A.B.

Apirilaren 15a bitartean jo daiteke udalera aisiarako ortua hartzeko

ZALDIBAR

Euskarari legez dagokion tokia bermatzeko irizpideak

Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea helburu duen ordenantza osatuko dute azken udalbatzarrean aho batez onartutako irizpide hauek. Herritarren "hizkuntza eskubideak" betetzeko eta "euskarak legez izan behar duen tokia bermatzeko" neurriak dira.

Zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzea ahalbidetu beharko dute

Udal langileek euskara-gaitasuna eduki beharko dute; bestela, udalak ikastaroak ematea erraztuko die. Zerbitzuetan, udalak zein honen erakunde autonomiadunek irizpideak bete beharko dituzte, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzea ahalbidetuz. Argitalpen eta errotuluetan euskararen kalitatea zainduko dute; biak erabiltzean, euskarari indarra emango diote, lekua edo tamaina lako faktoreak aintzat hartuz. ■ M.O.

Durangaldean labur

Seme-alaben autoestimua garatzeko hitzaldiak

Iurretako Ibarretxe kultur etxean gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako hitzaldiak emango dituzte maiatzaren 3, 4, 10 eta 12an, 18:30etik 20:00etara. Juan Carlos Alonso psikologoak seme-alabengan autoestimua zelan garatu izango du berbagai. Izenematea gaur, apirilaren 8an, amaitu da, Ibarretxen eta Maiztegi herri eskolan.

Kondaira elkartearen jardunaldiak asteburuan

Durangoko kiroldegian hainbat rol jokotan parte hartzeko aukera eskainiko du Kondaira kultur elkarteak gaurtik domekara. Gaur 18:00etatik 22:00etara hainbat demo eta jokotan jokatu ahalko da. Bihar 17:00etatik 22:00etara batuko dira, eta domekan 10:30etik 12:30era. Egitarau osoaren berri jakiteko: *www.ackondaira.com*.

Webgunea eraberritu du Amankomunazgoak

Durangaldeko Amankomunazgoak webgunea eraberritu du (*www.mdurango.org*) oraintsu. Webgune berrian argitasuna eta amankomunazgoak eskaintzen dituen zerbitzuetan arakatzeko erraztasuna bilatu dituzte. Horrez gainera, astean zehar gauzatzen dituzten ekimenen gaineko albisteak irakurri daitezke.

Abizenak euskal grafiara aldatzeko zerbitzua

Elorrion, Berrizen, Zaldibarren eta Abadiñon abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera dago, erregistro zibilean eskaera orri bat beteta. Alkarbide Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak kudeatzen du ekimena. NANaren fotokopia, jaiotza eta errolda zertifikatua eta familia liburua dira aurkeztu behar diren dokumentuak.

ATXONDO

Jaurlaritzari eskolako lanekin jarraitzeko eskatuko dio udalak

"Lursaila udalarena dela egiaztatzen duten dokumentuak" aurkeztu dituzte

Eskolako beharrak hilabete inguruan daude gelditua..

Eskola eraikitzen hasi diren lursaila udalarena dela esaten duten dokumentuak aurkeztu dituzte asteon udal arduradunek Jaurlaritzan. David Cobos alkateak azaldu duenez, "Hezkuntza Sailetik dokumentazioa ondo dagoela" esan diete. Horiek horrela, "obretako baimena legala dela demostratu" dela dio Cobosek. Datorren astean lanekin jarraitzeko eskari formala egingo dio udalak Jaurlaritzari.

Eskolako beharrekin jarraitzeko, Jaurlaritzak lurren gaineko zalantzak argitzea eskatu zuen joan zen astean; udalari jabetza berea dela demostratzeko edo auzokideekin akordio batera heltzeko eskatu zion.

Auzokideek eta udalak oraindik ez dute akordiorik lortu. Barikuan jarrerak argitzeko batzartu ziren, eta asteon abokatuak hartu-emanetan egon dira.

Alkateak azaldu du lurren jabetzaren dokumentazioa aurkeztu badute ere, auzokideekin berba egiten jarraitzeko asmoa dutela udal arduradunek: "ez da beharrezkoa izango, baina horrek ez du esan gura akordioa lortzea hobe ez denik". ■ A.Ugalde.

Lehengo eta oraingo dantzarien jaia bihar

Alardea egiteko ehun bat atxondar batuko dira

Hainbat entseguren ondoren, bihar arratsaldean dantza erakustaldia egingo dute Atxondoko dantzariek eta dantzari ohiek. Andasto dantza taldekoek azaldu dutenez, ehun bat lagun batuko dira dantzara, eta arratsaldeko 17:30ean hasiko dira, kalejiragaz.

18:00etan Ziarreta parkera gerturatuko dira alardea egiteko, eta ondoren triki-poteoari ekingo diote. 21:00ak aldera afaltzeko batuko dira Apatako frontoian, eta afalostean, frontoian bertan, Luhartz taldeagaz erromeria edukiko dute. ■ A.U.

MAÑARIA

Liburuaren Egunaren inguruko ekitaldi eta tailerrak barikuan

Apirilaren 15ean, 17:00etan hasita, burutuko dituzte aurtengo Liburuaren Eguneko ekimenak

Apirilaren 14an, eguenean, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, baina herritarren parte hartzerako barikua aproposagoa izan daitekeela pentsatuta, apirilaren 15erako, barikurako, antolatu du udalak nazioarteko egun horregaz bat egiteko pentsaturiko egitaraua.

Kirikiño eta Mañariko herriko idazleen lanen irakurraldia burutuko dute

Hamabi urtera arteko umeentzako tailerrak ere antolatuko dituzte barikuan

Datorren barikuan 17:00etan, herriko plazan egin dute hitzordua. Herriko heldu eta nerabeentzako ekitaldia burutuko dute ordu horretan udal liburutegian: herriko idazleen sorkuntzen inguruan antolaturikoa da ekimena.

Ebaristo Bustintza "Kirikiño" eta Errose Bustintza "Mañariko" idazleen ipuinen irakurketa proposatuko diete herritarrei: idazle mañariarren ipuinak irakurriko dituzte. Ekimenean parte hartu gura dutenei, liburutegian izena emateko deia egin diete.

Mañariar txikienentzat, hamabi urte artekoentzat, hainbat tailer antolatuko dute apirilaren 15erako. Ibaizabal argitaletxearen liburu sorta baten zozketan parte hartuko dute bertaratzen diren ume guztiek. ■ I.E.

ABADIÑO

Kaleko animaliei jaten emateko debekua

Bizilagunek kaleko katuei, txoriei edo bestelako animaliei janari hondarrak emateak arratoiak erakarri eta zikinkeria sortzen duela-eta, hori egitea debekatzen duen udal arautegia dagoela Abadiñon ekarri du herrian zabalduriko bando batean gogora Jose Luis Navarro alkateak: kaleak garbi mantentzeko eta gizalegezkoak ez diren jokabideak saihesteko udal araudiak halako jokaerak zigortzen dituela ere gogorarazi du.

Hainbat auzotarrek bizilagunen horrelako jokaerak salatu dituztela azaldu du alkateak. "Badakigu askok animaliak maite dituztela, baina jaten emateak zikinkeria arazoak eragin ditzake kaleetan", adierazi du. ■ I.E.

BERBAZ >

“Herritarren parte-hartzeagaz, beharbada, udalak ez zituen erabaki batzuk hartuko”

Datozen urteak Durangorentzat erabakiorrak izango direla dio Dani Maeztuk: “Hirigintza plana aztertu beharko da”

Durango herri handia dela, baina hirien gabezia batzuk dituela dio Dani Maeztu Aralarreko zinegotzi eta legebiltzarkideak. Herri-hiri horren etorkizunaz eta eskualdeko kontuez galdetu diogu, baita legebiltzarraren eta politika orokorraren gainean ere.

Zelan bizi izan duzu legegintzaldia?
Udalean daramatzagun bi legegintzaldiak hartu beharko nituzke kontutan, jarraipen bat egon delako. Gure lana oposizio lana izan da, gure ereduak eta EAJrenak ez daukalako zerikusirik. Ezkerretik eragin gura izan dugu, maximalismotan jausi barik. Hainbat proiektu aurrera ateratzea lortu dugu; gazteentzat etxebizitza lortzeko dirulaguntza, haurtzaindegi publikoa... Ekarpen onak egin ditugula uste dugu, baina eragitetik gauzak ezkerretik aldatzera pasatu behar dugu.

“Gobernu taldea oso epe motzera begira ibili da beharrean”

Udalaren eta herritarren artean distantzia handia dagoela adierazi izan duzue.
Herria gara, baina hiri handi baten gabeziak ere badauzka Durangok; eragile asko dago, baina bakoitza berera doa eta ez dago kohesiorik. Udaletik ez da kohesio hori bultzatzen. Erabaki potoloak hartzen dira herritarren parte-hartze barik, eta lehentasunak markatzerako orduan herritarrei entzun beharko genieke; aurrekontuetan, adibidez. Zalantzan jartzen dut herritarren parte-hartzerik balego udalak hartu dituen erabaki batzuk hartu izango ote zituen.

Agenda 21ean badago parte-hartzea.
Bai, baina urtero egiten den ekintza plana ez da bete, eta askotan herritarrek sentitzen dute euren proposamenak ez direla erabakiorrak. Dinamika askoz lotesleagoak eta erabaki klabeei begirakoak eduki beharko genituzke. Hitzarmen bat daukagu Parte Hartuz ekimenagaz aurrekontuetan parte-hartzea sustatzeko. Horrez gainera, hirigintza plana aztertu beharko dugu laster, eta hor ere garrantzitsua izango litzateke herritarren parte-hartzea.

Hirigintza plan horretan nondik jo beharko luke Durangok?
Erronka handia izango da. Durangoren garapenean aldaketak egongo dira; trenbidea lurperatzean, herriaren egitura fisikoa aldatu egingo da, eta lurzoruari dagokionez, ezin dugu gehiago hedatu; barrura begirako planteamentuak egiten hasi behar dugu. Epe luzeertainerako plangintza egin behar dugu, eta gobernu taldetik hori bota dugu faltan: oso epe motzera ibili dira beharrean. Hainbat gauza dago jokoan: zenbat etxebizitza beharko den, non, kultura azpiegiturak antolatzea, eragileak batzeko kultur etxea beharko genuke, zerbitzu sozial guztiak batzeko lekua ere bai... Mugikortasun arloan, oinez dabiltzanei eta bizikletei lehentasuna eman beharko genieke. Herrian geratu diren hainbat industria Eguzkitzako poligonoetara eroan beharko liratekeela ere uste dugu.



“Oso garrantzitsua da barneko eskualdeetako jendea legebiltzarrean egotea; hiri handietako ordezkariek eskualdeak ahazten dituzte ”

Diru faltagatik bota ditu gobernu taldeak zuen proposamen batzuk atzera.
Dirua bada kontutan hartzeko faktore bat, baina guri ezin digute erantzukizunik eskatu. Dirua biltzeko tresna garrantzitsuak dauzkagu: zergak eta tasak. Badago aukera diru-sarreren arabera gehien duenak zerga gehiago ordaintzeko; baina hori ez egitea erabaki dute. Gainera, krisian ez geundenean nahiko kudeaketa eskasa egin zuten. 12 milioiko igerilekuak egitea erabaki zuten, eta etxebizitza arloan, berriz, ezer ez egitea. Horri lehentasuna eman zioten. Orain ez dago dirurik ez baterako ez besterako, eta gu ez gara horren erantzule.

Dani Maeztu •

Aralarreko zinegotzia Durangon

- 37 urteko abokatua
- Legebiltzarkidea ere bada azkeneko hiru urteotan.

“Hauteskundeetan aukera guztiak egongo dira, baina ez egoera normalizatu batean”

Zelan daroazu zinegotzi eta legebiltzarkide izatea?
Maila pertsonalean, denbora asko kentzen didate. Egia da oso baliagarria izan zaidala legebiltzarkide izateko udalean neukan esperientzia, eta legebiltzarrean egotea Durangori eragiten dioten gaiak ezagutzeko. Oso garrantzitsua iruditzen zait barneko eskualdetako jendea erabakiak hartzen diren lekuetan egotea. Hiri handietako ordezkariak daude gehienbat legebiltzarrean, eta barnealdeko eskualdeak ahaztuta geratzeko arriskua dago.

Hauteskundeei begira, sentsibilitate politiko denak egongo dira?
Normalizazio politikorik aspaldian ez daukagu Euskal Herrian, ilegalizazioagatik eta egon diren mehatxuengatik; batzuek politika egiteko bizkarzainekin ibili behar izan dute. Estatuak oztopoak jartzen dabiltza normaltasuna lortzeko. Aukera guztiak egongo direla pentsatzen dut, baina, tamalez, ez normaltasun egoera batean. Ilegalizazio bat jada egon da, Sorturena, eta hauteskundeetan egoteko beste bide batzuk bilatzen dabiltza. Baina hori ez da egoera normalizatu bat. Aralarkide bezala, desiatzen nago berdintasun egoera batean ezker abertzaleko beste proiektu batzuk eta Aralar hauteskundeetan egon daitezen, eta jendeak aukeratzeko etorkizuneko ezker abertzale hori zer oinarrirekin egin behar den. ■ A.Ugalde

> Bideoa: www.anboto.org

maitatu, ikasi, ari...
EUSKALEKARI BADATOR!
durangaldera
apirilaren 14an
mallabitik elorriora

MALLABIA 01:37:04
ZALDIBAR 01:50:04
BERRIZ 02:06:58
MATIENA 02:33:37
DURANGO 02:50:51
IURRETA 03:13:36
DURANGO 03:32:07
ABADIÑO 03:38:18
ATXONDO 04:15:21
ELORRIO 04:39:24

aek
17. korrika

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Durangoko Ezker Abertzalea onartu diren 2011ko aurrekontuen aurrean

Aurrekontu hauek, egungo krisi egoerara eraman gaituen ereduaren jarraipena baino ez dira. Hori dela eta, osotasunera zuzenketa bakarra aurkeztu dugu, eredua bera delako aldatu behar dena. Durangoko beste talde politikoak ez daudenez eredua aldatzeko prest, ez ditugu babestu 2011ko aurrekontuak.

Austeritatea aipatu dute beste talde politikoek, baina kontua da: nondik zorroztu? Zorroztasuna lehentasunak ondo berrantolatzea da, epe motzera merkeago izan daitezken baina epe luzera beti garestiago diren azpikontraten gaineko eztabaida, hautetsiek jasotzen ditugun dietak, taldeekarpenak, protokolo gastuak e.a. murriztea, eta, nola ez, liberatu politikoen murriztea. Gogoratu, talde politiko bakoitzagatik (5 talde politiko egun), liberatu bat lanaldi osoan izan dezakegula, alkateaz gain. Liberazio oso bakoitza 69.000 euroko kostua delarik durangarrentzat. Baina, noski, hauek ez dira ukitu ere egiten.

Beste alderdi politikoen emendakinei erreparatuz, inork ez duela eredua zalantzan jartzen ikusten da. Aldiz, emendakin zeharo populista batzuk, garatu gabeak ere dezente, eta jada udalaren hainbat planetan dauden ekimenak planteatzen dituztela ikusten da.

PPk babestu ditu aurrekontuak, euren 12 emendakinetatik 10 aurrera atera direlako PNVko gobernu taldearen laguntzaz. Hasierako planteamenduan, 5 emendakinetan, dirua nondik murriztu eta euskara arlotik kentzea planteatzen zuten, nahiz eta azken unean dirua-iturria aldatu egin duten.

Aralar taldearen emendakinak, aldiz, batzuk populista hutsak direla deritzogu, aurrera ateratzeko errazak, eta, noski, ezin hauen kontra joan. Baina hainbat gauza deigarri ikusi ditugu:

Batetik, "Goi kargu" ataletik kulturari dagozkion diru partida batzuk ateratzea "lortu dute". Noski, guk ere aspaldi eskatu izan dugu gauza bera batzordeetan, baina bi salbuespenekin. Ezker Abertzalearen ustez, ezker ikuspegi batetik, Durangoko bonbardaketa faxistaren oroimenez egiten diren ekitaldiak ez dira kultura soilik. Eta Saharar herrira doan diru partida ere, bi herrien arteko harreman institucional gisa ulertzen dugu. Bi partida hauek "Goi kargu" atalean ondo zeudela uste dugu, guretzat herri baten, kasu honetan bi herriren, sufrimendua ez baita kultura.

Bestetik, diru-laguntzak ere aipatzen ditu Aralarrek euren emendakinetan. Ezker ikuspegi batetik begiratuta, edozein diru-laguntza ezin da orokortu, baizik eta beti ere diru sarreren arabera eman behar da.

PSOEren emendakinei dagokienez, Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko partida proposatu dute. Guk aspalditik defendatzen dugu Durangok etxebizitzaren inguruko diagnostiko bat behar duela; eta ez eraiki eraikitzearren. Hala ere, eta diagnostikoaren ostean eraikitzea komenigarria balitzateke, udalaren zuzeneko kudeaketa da gure nahia, kooperatibak sustatuz eta promotorerik gabe.

Bestetik kanpo parkinak egiteko lurzoruak erostea ere proposatu du PSOEk. Guk ondo ikusten dugu kanpo parkinak jartzea, baina hauek oinezkoentzako Durango eroso bat egiteko balio dezatela. Betidanik proposatu izan dugu TAOa, handitu eta handitu beharrean, murriztu egin behar dela, errotazio altuko guneak jarriz. Mugikortasunean pertsonak ere hartu behar direla kontutan, ez soilik kotxeak.

Kultur etxeko proiektua egiteko diru partida bat ere proposatu dute. Aspaldi agertu genuen guk kultur etxe baten beharra; are gehiago, Santa Susana komentua aproposena dela uste dugu. Kontua gero nola kudeatu izango da. Gure ustez, elkarte guztiak parte hartu behar dute proiektu horretan, baita elkarte autogestionatuek ere. Eta hor hain zuzen ere talka egiten dugu.

Gaztetxea dagoen eraikina botatzeko diru partida ere onartu dute. Gure ustez, lehenengo gazte autogestionatuei alternatibak eman behar zaizkie, ez baitugu ahaztu behar azken urteotan Gazte Asanbladak egindako ekintza guztiak, nahiz eta PSOE-ri gustatu ez. Eta nola ez, PNVk orain dela bi urteko osoko bilkura batean (jaien ingurukoa) gaztetxeko eraikinari eta bertoko gaztei alternatiba bilatu behar zitzaiela esan zuela ere ezin ahaztu: orduan esandakoak jan egiten ditu PNVk edo bere zinegotzia desautorizatzen du?

Horregatik guztiagatik ez ditugu babestu 2011 aurrekontuak, baina hori bai, guk gure proposamenak egiten jarraituko dugu:

Etxebizitzaren inguruan diagnostiko bat egitea bultzatuko dugu. Euskararen normalizazioaren bidean lanean jarraituko dugu, traba guztien gainetik. Pertsonak ere kontutan hartzen dituen mugikortasun plana babestuko dugu; ez kotxeak soilik ikusten dituena.Kultu etxe baten beharra jarraituko dugu babesten, gure ustez aproposena den tokian; Santa Susana komentuan, alegia.Taldeen arteko elkarrizketak babestuko ditugu, proiektuak aurrera ateratzeko balio dutenak, gure ustez denon parte-hartzea ezinbestekoa delako. Bai talde politikoena, bai herritarrena.

Puntu honetan PNV gobernu taldeak gurekiko izan duen jarrera azpimarratu nahi dugu. Udalean bigarren indarra izanda, aurrekontuaren irizpena egin baino bi egun lehenago deitu zigu ten horretaz hitz egiteko. Jakinda ere Ezker Abertzalearen eta PNV ren arteko ezberdintasunak, denok dakigu bi egunetan ezin dugula ezer adostu. Honi deitzen diote elkarrizketa politikoa, antza denez.

Eskutitz hau Durangoko Gazte Asanbladari gure elkartasuna adieraziz amaitu nahi dugu. Guztion etxea den gaztetxea defendatzearren, pleno aretotik atera zituzten bultzakada artean. Hemen ere bigarren mailako kolektiboak ei daude. Lau urtetan hainbat protesta izan dira pleno aretoan, eta era honetan atera dituzten bakarrak Gazte Asanbladakoak izan dira. Animo gazteok!

Durangoko Ezker Abertzaleko zinegotziok

Ez dut ezer ulertzen

Ez dut ezer ulertzen. Eta dena memoria dudalako.

Libiako herria salbatzen ari dira orain. Tirano baten atzaparretatik askatzen. Hile bat ez da mundu osoko agintariek Gadafirekin argazkiak ateratzen zituztela. Ez dut ulertzen.

Japoneko zentral nuklearrak ez omen du hain arrisku larririk. Lasai. Ez da komeni alarma sozialik sortzea. Baina orain urtebete, egunero gosaltzen genuen ustez A gripearen ondorioz hildako gaixoren batekin. Ez dut ulertzen.

Libia bezala, orain urte batzuk Irakera joan ziren "Armas de destruccion masiva" topatzera, beno bilatzera, hobeto esanda. Behi zoroen gaitzaren erruz, milaka eta milaka pertsona hilko zirela ere esan zuten. Lemoizko zentrala egin ezean, azak jan eta argia kandelekin egingo genuela. A-8 autobidearen kudeaketa herriaren esku geratuko zela. Dei nazazue nostalgiko nahi baduzue, baina ez dut ezer ulertzen.

Ez dut ezer ulertzen... baina dena ulertzen dut. Eskerrik asko, memoria.

Sugar Perez - Abadiño

Sei hankako mahaia

Jose Luis **Zubillaga**
Ezker Batua

Hileta zibilak Iurretan

Gizarte osoak dakienez, estatu ez-konfesional eta laiko batean, instituzioek pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzarakoa ziurtatu behar dute ordena publikoa mantentzeko legeak ezartzen dituen mugekin. Era berean, ezaguna da gure gizartearen aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala, gizarte anitza baita eta etenik bako eraldatzea bizi duena bere ohituren eta ekintzen agerpenetan.

Heriotzagatiko hileta eta omenaldi zibilak egitea erlijiorik barik bizitzeko aukera egin duten herritarrei ekitaldi duina eta pertsonala eskaintzeko beharrizanetik sortu den ekimena da, hildakoak bizitza ulertzeko zeukan moduarekin bat datorrena.

Gure gizartean eta herrian bertan bizi diren erlijio ugariek euren hildakoak omentzeko euren lekuak eta tenpluak dituzten moduan, Iurretako Udalak gizartean geroago eta gehiagok egiten duten eskari bati erantzuteko erantzukizuna dauka; horregatik, Ezker Batua-Berdeak taldekook, mozio baten bidez eskatu genion Iurretako Udalari ordenantza bat landu zezala, Iurretako gizarte zibila osatzen duten familiek, lagun taldeek, erakundeek eta/edo entitateek euren hildakoak omentzeko edo agurtzeko zein komunitateari edo balore etiko eta/edo humanoei egin dizkieten ekarpenak aitortzeko ekitaldiak egin ahal izateko baimenak erregulatzeko.

Esan beharra daukagu duela egun gutxi udalbatzarra egin genuela eta Iurretan hileta zibilak ospatzeko arauak hasierako onarpena jaso zuela, eta Ezker Batua- Berdeak taldekook ekimen honek aurrera egingo duelako zorioneko sentitzen gara, eta nabarmendu beharra daukagu Iurretako udalerria aitzindari izango dela mota honetako arau bat gauzatzerako orduan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko apirilaren 8a - 10. urtea - 411 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Manaria, Otxandio, Zaldibar

Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KULTURA

ZILAR ASTEA> 80KO HAMARKADA

K.Aginako

Apirilak 12
20:00 80ko hamarkadako Euskal Herriari buruzko **mahai-ingurua**, Plateruenean: Josu Zabala, Mario Zubiaga eta Idoia Eizmendi

Apirilak 14
20:00 **(Za)patuek** ikuskizuna, Plateruenean. Parte-hartzaileak: Kriskitin, Karrika, Txistu y Tamboliñ, Felix Arkarazo eta Aitor Nika antzezleak, Ander Erzilla musikaria

Apirilak 15
22:00 'Durango 80' dokumentalaren aurkezpena, San Agustin kulturgunean

Apirilak 16
10:00 Literatur Eskola, Juan Luis Zabalak gidatuta, Udal Liburutegian
18:00 Olgetan: 80ko hamarkadako jolasak
20:00 'Durango 80' dokumentala San Agustinen

80ko hamarkadako Durangori buruzko Zilar Astea, auzolanean

Hamarkada "sortzaile, ekintzaile, eraikitzaile, bizi eta emankor" hura gogoratu, ezagutu eta biziberritzeko antolatu dute Durangoko dozena bat kultur talde, eragile, norbanako eta erakundek aurtengo aste tematikoa

Iaz Joseba Sarrionandiaren unibertsoa gerturatu zuen Zilar Asteak Durangoko kulturgune eta ikastetxeetara. Udaberriaren atariko aste tematikoaren bigarren edizioan ere Durangaldean kulturgintzan diharduten askotariko lagunek hartu dute parte. Atzo egin zuten Plateruenean aurtengoaren aurkezpena. Durangon kulturgintzan eta hezkuntzan diharduten dozena bat elkarte, erakunde eta norbanakok antolatu dute bigarren Zilar Astea.

Aste tematikoaren hari izateko 80ko hamarkada aukeratu dute, Igor Elortzak aurkezpenean azpimarratu duenez, "hamarkada sortzaile, ekintzaile eta eraikitzailea; bizia, emankorra eta esanguratsua". Euskal Herrian eta Durangaldean ere politika, gizarte, zein kultur arloan urte gorabeheratsuak izan zirenak dira datorren asterako eratu dituzten ekimenen ardatz. Urte haiek gogoratu eta biziberritu gura dituenak hainbat kultur adierazpenen bitartez izango du garai hartara gerturatzeko aukera. Garai hura, "nostalgiaz eta mitifikaziotik barik, jakinminez eta ezagutarazteko gogoz" begiratzeko, bizi izan zutenen ahotik.

> Martxoan, 1980ko hamarkadari buruz jardun dute eskoletan

Martxoan, 1980ko hamarkadaren inguruko gaiak jorratu dituzte Durangoko batxilergoko eskoletan; besteak beste, *Egizu zeuk* film laburren lehiaketara euren lanak aurkeztu dituzte. Datorren astean, apirilaren 12an hasita, eskaintza oparoa dute kulturzaleek aukeran. ■ I.Esteban

JUAN LUIS ZABALA

***Galdu arte* eleberria oinarri hartuta, 80ko hamarkadan bizitakoari buruz jardun du idazleak asteon Durangoko batxilergoko ikasleekin solasean.**

Literatur Eskola gidatuko du apirilaren 16an, liburutegian.

Zelan joan dira saioak?
Ondo joan dira. Harritu egiten dira gazteak gauza batzuekin, baina euren errealitatearekin lotura ere egiten dute.

Zelan laburbildu garai hura?
Frankismoa bukatuta, dena posible zela ematen zuen. Kontraste handia zegoen gazte mugimenduaren eta bizimodu tradizionalaren artean.

Alde ilunean: drogen eragina.
Drogen legalizazioaren aldeko jarrera hartu genuen; gizartean alkohola onartzen bazen, "Beste drogak zergatik dira ilegalak?" zen gure galdera. Gaztetxeen mugimenduan oso aktiboa zen jendea ere erori zen gero heroinaren zuloan, eta asko kaltetu zuen horrek gaztetxeen mugimendua.

Apirilaren 16ko literatur eskolarako zer asmo daukazu?
"Rock radical vasco" eta 80ko hamarkadako euskal punk mugimenduaz idatzi den apurra biltzen eta nire ikuspegia ematen saiatuko naiz.

Durango 80 dokumetala
UNAI ITURRIAGA ETA **BIDEOGRAFIK** EKOIZTETXEA

Bideografik ekoiztetxeagaz elkarlanean gidoigile eta zuzendari lanak burutu dituen Unai Iturriagak aurkezpenean nabarmendu duenez, "auzolan espirituagaz, erlojuari begiratu barik", osatutako dokumentala da apirilaren 15ean San Agustinen aurkeztuko duten *Durango 80*.

"80ko hamarkadako kultur eta herri mugimenduen gaineko elkarrizketen bilduma" da osatu duten dokumentala, Zilar Astearen Plateruneko atzoko aurkezpenean Unai Iturriaga durangarrak azaldu zuenez.

Garaiko hainbat dokumentu bildu eta 28 lagun elkarrizketatu dituzte ikus-entzunezkoa osatzeko; hamabost bat gairen inguruan jarduten dute elkarrizketatuek, "mugimendu haren guztiaren argazkia" egiteko.

"Garai hartako jendeak esaten duen moduan, beste ardura batzuk zeuzkatenez, murritz samarra da garaiko material dokumental kopurua", azpimarratu du Iturriagak, eta horregatik eskertu du, bereziki, materiala "ganbaretatik berreskuratzen lagundu duen jende guztia".

'(Za)patuek' ikuskizuna osatu dute hainbat kultur taldek

Edorta Barruetabeñak eta Ander Erzillak zuzendu duten ikuskizuna da apirilaren 14an Plateruenean ikusgai izango dugun *(Za)patuek*, Txistu y Tamboliñ literatur taldearen gidoia daukan lana: "1984ko zapatu eta taberna arrunt batean, jende arruntaren gorabeherak kontatzen dituena", Barruetabeñaren berbetan. Errutinari eusten ahalegintzen diren arren, hamarkada hartako inguru biziak, "patuak edo zapatuak", ikuskizuneko protagonista bakoitza bere bidetik eroango du. Apustu bategaz amaituko ei da dena, eta , "garai hartako eta gaur egungo gizartearen arteko konparazio bat ere jasotzen du" ikuskizunak.

"Hainbat kolektibo batu gara amets zoro hau sortzeko", esan du Barruetabeñak: Kriskitin dantza taldea, Karrika antzerki taldea, Txistu y Tamboliñ literatur taldea, Felix Arkarazo eta Aitor Nika antzezleak, eta Ander Erzillarenmusika taldeak hartu dute parte, besteak beste.

MUSIKA> LEHIAKETA

Malagako Oceans irabazle Rock Izar maketa lehiaketan

Durangoko talderik onenaren saria, berriz, Doktors Klub country taldeari eman zioten

Rock klasikoa jorratzen duen Malagako Oceans laukotea hautatu dute Rock Izar eskolaren lehenengo maketa lehiaketaren irabazle. Hamalau eta hamazazpi urte bitarteko taldekideek osatzen duten Arrakada talde mungiarrak jaso zuen, bestalde, bigarren saria Plateruenean jokatu zen finalean.

> 14 eta 17 urte bitarteko taldekideek osatzen duten Arrakada bigarren

Durangaldeko Raxfer eta Doktors Klub taldeek ere jo zuten Rock Izar eskolaren lehiaketaren Plateruneko barikuko finalean, eta country doinuak jotzen dituen Doktors Klub laukoteari eman zion epaimahaiak Durangoko talderik onenaren saria: bertako San Fausto jaietan lehiaketaren irabazleagaz kontzertua eskaintzea izango da Doktors Kluben saria.

Lehiaketaren balorazioa eskatuta, batez ere, barikuko Durangoko Plateruneko finalean jardun zuten taldeek zuzenean erakutsi zuten "maila" nabarmendu dute Rock Izar eskolako antolatzaileek, eta finalerdietako kontzertuetara baino entzule gehiago hurreratu zela barikuko finalera. Datozen edizioetan Durangaldeko talde gehiago erakartzea dutela helburu diote Rock Izarrekoek. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA> ERAKUSKETA

Patxi Laskarairen Euskal Herriaren irudiak Arte eta Historia Museoan

Apirilaren 24a arte daude Laskarairen argazkiak Durangoko Museoan ikusgai

Lekunberriko argazkilariaren lanen bilduma dago ikusgai, joan zen barikutik, Durangoko Arte eta Historia Museoko erakusketan. Apirilaren 24a arte izango da Durangon Laskaraik hamabost urtean Euskal Herriko hainbat txokotan egindako argazkien bilduma hau bisitariei zabalik.

Arte Ederretan lizentziatu zen Laskarai, eta Gabriel Martinez argazkilariak Donibane Lohizunen zeukan argazki dendaren arduradun lanetan jardun izan du ondoren.

Durangoko honen aurretik, beste hainbat herritan ere erakutsi izan du Patxi Laskaraik bere lana: Seguran, Donibane Garazin eta Donibane Lohizunen erakutsi izan ditu bere argazkiak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea

Ali

Txapela buruan eta zuzen-zuzen Durango eta Iurretako kaleetan bere irudia egunero ikusten ohituak ginen. Durangoko Magdalena auzoan 1928an jaioa, bizitzaren gauzak direla-eta azken urteetan Iurretan zuen finkatuta bere txokoa. Kirola eta musika zituen bihotzeko. Durangoko Culturaleko eta Lemoako futbol taldeetako jokalaria izan zen. Futbolari trebea zen, baina lesio bat dela medio utzi egin behar izan zion jokatzeari.

Musikan, baritono bezala ibili zen Andra Mariko koruan, Durangoko Orfeoian, Gau Txorietan eta azken hamarkadatan Iurretako koruan. Meza kantak, herri kantak, berdin zen Perosi zein Miangolarrarenak, kantatzea beretzat arnasa hartzea bezain garrantzitsua zen. Baina ez edozein preziotan.

Gaur egun errege dugun Juan Carlos Durangora bisitan printzipe gisa etorri zenean, Amorrortu Durangoko alkateak bere bulegora deitu zituen Ali eta Botas, garai hartan orfeoiko presidente eta presidenteordea, aginduz printzipearen aurrean Andra Mariko eleizan *Salve* bat abestu behar zutela. Biak esan zioten… "Pentsatu ere ez!". Amorrortu meatxuka hasi ei zen eta eurek, erre ke erre, "Pentsatu ere ez!". Orfeoiko partaide gehienak eurekin ados… Batzuk abertzale zirelako eta beste asko karlistak, eta horiek, Juan Carlos Borboia izanik, ikusi ere ez zuten egin gura. Azkenik kanta gabe alde egin zuen Durangotik.

Jose Antonio Azkarate "Botas", Gaizka Macho, Jose Luis Iturrieta eta beste hainbat lagunekin ordu asko sartu zituen lapiko artean. Sanfaustoetan epaimahai, edozein txokotan sukaldari edo anfitrioi… edozertarako balio zuten.

Gerra garaian umea zen eta berak aitortzen zuen ez zela asko gogoratzen. Gerra osteko istorioak idazterako, artxibo bat zen. Gertakizunak, izenak, gaitzizenak, datak eta abar oso ondo gogoratzen zituen bere buru barnean. Laguntza handia izan dugu askotan hainbat artikulu idazteko. Lerro hauetan gehiagorik ezin da kontatu, baina bai esaldi batekin bukatu: Eskerrik asko Ali!

LITERATURA> IRTEERA

'Kontrarioa' nobelan oinarritutako ibilaldia

Oreretara, Lander Garroren nobela kokatua dagoen lekuetara joango dira Iurretako Irakurle Klubeko kideak

Lander Garro idazlearen *Kontrarioa* liburuan oinarrituta, Ibilbide Literarioa antolatu dute apirilaren 9rako Iurretako eta Markiña-Xemeingo herri bibliotekek.

Iurretako Ibarretxe kultur etxearen ondoko autobus geltokitik 11:30ean abiatuta, Garroren lehenengo liburuan aipatzen diren lekuetan zehar ibilaldia egingo dute Markinako eta Iurretako irakurle klubetako kideek. Oreretara joango dira, beraz, eta aztergai duten liburuaren idazlearekin solasaldia ere izango dute.

Egunak Oskar lagunagaz xakean eta edaten pasatzen dituen Raul Oliveira izeneko protagonistaren ibilerak kontatzen dira *Kontrarioa* liburuan; Oreretako Pontika auzoan bizi den mutilaren ibilerak. Auzo eta istorio horiek bertatik bertara ezagutuko dituzte zapatuan. ■ I.E.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

NACEX
San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es
Informazio orokorra: 900 100 000

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

ODONTOLOGIA

clínicadentalhortzklinika

B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK: oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

Oreka
Iturre Zabala Amezua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari ezineustea, *traumatologia, kirola, trafiko istripua, drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),…*

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA

keñuu

ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria. NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99

GOIATZ MURUA PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia;Onikopatia; Alterazio Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30

PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA & OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

KIROMASAJEA

shiatzu
KIROMASAJEA

KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 — Durango
jon@psikologo.biz — www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

Josu Zabala
Mikel Larrañaga
hiru
fisioterapia
Arrata Irazu

HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

HEMEN AGERTU GURA BADOZU, DEITU:

94 621 79 02

IPUIN-KONTALARITZA> SAIOAK

Munduko kulturen isla diren ipuinak eta ahotsak entzungai

Berrizko eta Durangoko liburutegietan eta Elorrioko Arriolan izango dira Munduko Kontalariak jaialdiaren Durangaldeko emanaldiak: apirilaren 15ean ipini dute aurten hitzordua

Argentina, Kolonbia, Kuba eta Venezuela eta Euskal Herriko kontuak

Argentina eta Kolonbiako ipuinak izango dira Elorrion entzungai

Argentina, Euskal Herria, Kolonbia, Kuba eta Venezuelako ahotsak dakarzkigu Munduko Kontalariak jaialdiak Berriz, Durango eta Elorriora apirilaren 15ean. Datorren barikuan, beraz, Berrizko eta Durangoko udal liburutegietan 20:00etan, eta Elorrioko Arriola antzokian 22:00etan eskainiko dituzte emanaldiak. Antolatzaileen berbetan, "mundu globalizatu eta uniformatu honetan, euren mundu magikoa" eskainiko digute kontu kontalariek saio horietan.

Jhon Ardila kolonbiarrak eta Victoria Siedlecki argentinarrak jardungo dute, esaterako, Elorrion. Entzulego helduari zuzenduta, *De allá* izenburua daraman saioa eskainiko du Ardilak: bere herrialdearen historiari, musikari, gastronomiari, geografiari, ohiturei eta usadioei erreferentzia eginez.

Victoria Siedlecki kontalariak ere jardungo du Arriolan, eta *Relatos eróticos* ipuin sorta eskainiko du: erotismoa da saioaren ardatza, eta bertaratzen direnengan "entzutearen plazera" berpiztea duela helburu esaten du.

Durangon eta Berrizen 20:00etan, eta 22:00etan Arriolan

Apirilaren 15ean, 20:00etan, hiru emanaldi izango dira Berrizko liburutegian ere: *Contando y cantando ando*... Venezuelako Fanny Fuguet kontalariaren eskutik, Lucas Nápoles kubatarraren *Que comience el wemilere* eta Ainara Bilbaoren *Cuentos en su salsa* izango dira entzungai.

Durangoko udal liburutegiko saioan, Ainara Bilbao kontalari euskaldunak eta Jhon Ardila kolonbiarrak hartuko dute parte, apirilaren 15ean, 20:00etan hasita. ■ I.E.

MUSIKA> DISKO BERRIA

Bigarren diskoa kaleratu du Shinovak, eta Internetetik deskargatu daiteke

Azaroan Berrizko Estoldetan estudioan grabatu, Madrilen nahastu eta ondoren Finlandian masterizatutako diskoa da Shinovak martxoan kaleratu duen 'La ceremonia de la confusión'

La ceremonia de la confusión izenagaz kaleratu duen diskoa internet bidez doan deskargatzeko aukeran ipini du Shinova Durangaldeko musika taldeak: 'paypal' sistemaren bitartez, zaleei dohaintzarako aukera ere eskaintzen diete *www.shinovarock.com*-en.

Berrizko Estoldetan estudioan grabatua, Madrilen nahastua eta Finlandian masterizatua da boskotearen bigarren disko hau.

Iaztik gitarra-jotzaile berriagaz dihardu taldeak, eta 2010eko udaberrian ernaltzen hasitakoak dira orain Internetan eskuragai utzi dituzten kantak. Gitarrak, baxuak, bateriak eta abeslariaren ahots indartsuak osatzen dituzte bigarren disko honetan ere Shinovaren metal doinuak.

Iaztik gitarra-jotzaile berriagaz dihardu Shinova taldeak

Orain urte bi kaleratu zuten *Latidos* lehenengo lanean jasotako "esentziari uko egin barik" sortutako diskoa da martxoan kaleratu duten hau, Mauka diskoetxearen aurkezpen txartelak dioenez. Metal eta rock doinuen "esentzia" galdu barik, "soinuaren garapen itzela" lortu duela Shinovak azpimarratzen du diskoetxeak.

Taldearen "esentziari uko egin barik", baina soinua garatuz

Disko berriko kantak zuzenekoetan aurkezteko kontzertuak eskaintzeari ekitea dute orain Shinovako bost musikariek helburu. Laster *La ceremonia de la confusión* disko honen aurkezpen birari ekingo diotela aurreratu dute.

Iazko azaroan grabatu, abenduan nahastu eta ondoren Finlanian masterizatutako diskoa entzungai eta eskuragai da. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
APIRILAK 13 21:30ean KONTZERTUA.
ENTOMBED + VORTICE+ADRIFT+NEILA +LEGEN BELTZA. Sarrera: 18-22euro.
APIRILAK 9 KORRIKA BAZKARIA
TXARTELAK Abarrak euskaltegian edo Plateruenan.
APIRILAK 9 19:00etan DANTZALDIA. Sarrera doan
AIKO ERROMERIA
APIRILAK 10 17:30ean UMEENTZAKO ANTZERKIA
BIKOKOTEA. Sarrera: 3 euro.
APIRILAK 15 22:00etan GAU ELEKTRONIKOA
PATT aka CHARLES RAMIREZ. Sarrera: 10-12 euro.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

KIROLAK >

Tabirakok eta ikastetxeek beste bi urterako luzatu dute hitzarmena

Hilario Perez Tabirakoko lehendakaria, ikastetxeetako ordezkariekin hitzarmena sinatu eta gero.

2008ko apirilean lehenengo biderrez sinatu zuten hitzarmena Tabirako saskibaloi taldeak eta Durangoko ikastetxeek. Ekimen hori berritzeko eta indartzeko asmoagaz, hitzarmen berria sinatu dute bi aldeek.

Bigarrenez, hitzarmena sinatu dute Tabirakok eta Durangoko ikastetxeek. Berrogeita hamar urte baino gehiagoan leial izan zaio Tabirako bere filosofiari: etxeko jokalariekin soilik jokatzen duen talde bakarretarikoa da durangarra. Bide horri eusteko ezinbesteko du herriko harrobia zaintzea. Jokalari berrien hazkuntza bermatzeko, Durangoko ikastetxeekin hitzarmena sinatu du Tabirakok; 2008an sinaturiko hitzarmena beste bi urterako luzatu dute bi aldeek. Aurrekoan legez, Durangoko ikastetxe guztiek sinatu dute akordioa: Jesuitak, Kurutziaga, Landako, F.J Zumarraga, Nevers eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeek, hain zuzen ere. Hilario Perez Tabirakoko lehendakariaren berbetan, talde durangarrarentzat "ezinbestekoak" dira horrelako ekimenak. "Gurea lako taldeek beharrezko dute harrobia, eta hori ziurtatzea bilatzen dugu horrelako egitasmoak gauzatzen ditugunean".

> Perez: "Gurea lako taldeek beharrezko dituzte harrobia zaintzeko ekimenak"

Eskolekin sinaturiko hitzarmenak 23 arlotan du eragina; akordio berri horretan aldaketak egon dira. Horietako batek, euskararen aldeko apustua sendotzen du; aipaturiko hitzarmenaren bitartez, Tabirakok hainbat konpromiso hartzen ditu euskararekiko. Horrez gainera, taldekideen artean sustatzea indartuko dute. Guztira, 550 ume baino gehiagori eragingo die hitzarmen horrek.

> Tabirakok eta ikastetxeek sinaturiko akordioak euskara sustatu gura du

Etorkizuneko jokalariak hezteaz gainera, Perezen berbetan, gabezia bat ere bete nahi du ikastetxeek eta Tabirakok sinaturiko hitzarmenak: maila guztietako entrenatzaileak trebatzeko helburua ere badu sinaturiko dokumentuak. Perezen arabera, prestatzaile gabeziak eragina du talde kopuruan. "Entrenatzaile gehiago bagenu, talde gehiago edukiko genituzke". Akordioaren bitartez, entrenatzaileei trebatzeko aukera handiagoa eskainiko zaie. Tabirakoren asmoa etxeko jokalariekin aritzea izanik, Hilario Perez lehendakaria argi egiten du berba: "Klubak etorkizunik izango badu, honelako ekimenei loturik dago".

> Entrenatzaile gabezia betetzea da hitzarmenaren beste gakoetariko bat

Aldaketa garaia

Ekainaren 22ko asanbladan, bestalde, hauteskundeak burutuko dira Tabirakon. Bederatzi urtean (azken lauak lehendakari) Tabirakoko zuzendaritzan egon ondoren, Hilario Perezek zuzendaritza utzi egingo duela iragarri du. Perezen berbetan, urte hauek "oso positiboak" izan dira; gainera, ontzat jo du EBA mailan igarotako denboraldi hau: "Jokalariek asko ikasi dute, eta etxekoengan konfiantza dugula erakutsi dugu". Hitzarmena ikusita, saskibaloi taldeak filosofia berari eutsiko diola aurreikusi daiteke; urte batzuetarako jokalari gazteak ziurtatzen dizkion harrobia dauka Tabirakok. ■ A.Maldonado.

Zornotza eta Iurreta arteko ibilaldia antolatu du Zaldaik

Iurretako Zaldai mendi taldeak Durangaldeko mendietan zehar ibilaldiak antolatuko dituela iragarri du. Horietako bat bihar, hilaren 9an, egingo dute. Zornotzatik irtenda, Aramotz mendilerroa igaroko du ibilaldiak, Iurretara heltzeko.

Irteera, goizeko 08:15ean izango da, Iurretako Maspe kaleko autobus geltokitik, eta eguerdi alderako itzuliko direla aurreikusi dute mendi taldekoek. Zornotzatik abiatuta, Belatxikieta eta Mugarrikolanda zeharkatuko dituzte, ibilbidea Iurretan amaitzeko. Informazioa gehiago *www.zaldaimenditaldea.org* helbidean. ■ A.M.

La Vila Joiosako rallyan kale egin dute durangarrek

Iñigo Olabegogeaskoetxea eta Aketza Santacoloma durangarrek ezin izan zuten La Vila Joiosako (Alacant) rallya amaitu; abiadura-kaxan arazoak zirela-eta, lasterketa utzi behar izan zuten. Españako Rally Txapelketako lehenengo proba izan zen apirilaren 1ean eta 2an jokaturiko hori. Miguel Fusterrek (Porsche 911 GT3) irabazi zuen proba; 1:31:27.3-ko denbora behar izan zuen irabazleak.

Alacanteko La Vila Joiosako rallya ospatzen den 21. aldia izan da aurtengoa. Iñigo Olabegogeaskoetxea eta Aketza Santacoloma bikotea Durangalde Racing taldeko kideak dira. ■ A.M.

San Prudentzio txapelketa azken txanpan

Asteburu honetan Abadiñoko San Prudentzio txapelketako final-laurdenak jokatuko dituzte Matienako frontoian. Gaurtik hasita, hainbat mailatako partiduak jokatuko dituzte; gaur, Berasaluze IX.ak eta Arzelusek osaturiko bikoteak A. Beitiaren eta Urberuagaren kontra jokatuko dute. Domekan, berriz, Uriarte-Ajuria Mikel-Jaio bikotearen kontra lehiatuko da. Senior mailako partiduez gain, gazte eta kadete mailetakoak jokatuko dituzte. Gaurko partiduak 20:15ean hasiko dira; bihar eta etzikoak, ostera, 16:30ean. ■ A.M.

Intxaurraga entrenatzailearen berbetan, taldea maila ona ematen dabil. Kepa Aginako

Igoera fasea ziurtatzeko aukera ona du Kulturalak

Beasaini irabaziz gero, 8 puntuko aldea izango du jarraitzaileekiko. Talde gipuzkoarra arerio zuzena du igoera lortzeko borrokan

Domeka arratsaldean partidu erabakigarria jokatuko dute Axier Intxaurragaren mutilek. Beasaini irabaziz gero, durangarrek ia ziurtaturik daukate igoera fasea jokatzea; horrela pentsatzen du Intxaurraga entrenatzaileak: "Irabaziz gero, 8 puntuko aldea izango dugu Beasainekiko, eta horri buelta ematea oso gaitz izango dute". Galduz gero, berriz, larriago ibiliko dira zuriurdinak; aldea bi puntura murriztuko litzateke.

Intxaurraga entrenatzailearen berbetan, "gaitza" izango da Beasaini irabaztea; "esperientzia handiko jokalariak dituzte, asko 2.B mailan jokatutakoak dira". Intxaurragak, edozelan ere, bere taldean duen konfiantza nabarmentzen du: "Momentu onean gaude". Esan bezala, asteburu honetako partidua garrantzitsua da Kulturalarentzat. "Oraindik puntu asko daude jokoan, hala ere, irabaziz gero ia ziurtaturik geratuko dira play off postuak". 32 jardunaldiren ondoren, talde durangarra laugarren postuan dago sailkaturik, 60 puntugaz. Taldeko liderra Zornotza da, 67 puntugaz; zornotzarrek gora egin dute txapelketako azken zati honetan. Beasain bosgarren dago sailkaturik, Kulturalak baino bost puntu gutxiagogaz.

> Irabaziz gero, 8 puntuko aldea izango luke 5. sailkatuarekiko

> Aurreko jardunaldian Kulturalak 3-3 berdindu zuen Portugaleterekin

Berdinketa Portugaleten

Etxetik kanpora hiru puntu poltsikoratzeko aukera ona galdu zuen Kulturalak aurreko jardunaldian. Lehenengo zatian 0-2 irabazten joan eta gero, hiruna berdindu zuten durangarrek Portugaleteren kontra. Portugaletek azkeneko minutuan sarturiko penalti bati esker berdindu zuen, gainera; "Bigarren zatian gora egin zuten, eta bi puntuk ihes egin ziguten" adierazi du Intxaurragak. Talde zuriurdineko golegileak Odei, Muniozguren eta Gorroño izan ziren.

Bestalde, Ohorezko mailan, Berriz taldea suspertu egin dela dirudi. J.M Loitik taldearen gidaritza hartu zuenetik, salbazioa sei puntura izatetik puntu bakarrera edukitzera igaro da. Domekan, Indautxuren aurka jokatuko dute berriztarrek. ■ A.M.

Sasikoak gaitz izango du mailari eustea

Bost jardunaldiren faltan jaitsiera postuetan dira durangarrak, lau puntuko aldeagatik

Bost jardunaldi geratzen dira Nazional A Maila amaitzeko, eta lidergoa ia erabakita dagoela, maila nork galduko duen ziurtatzea baino ez da geratzen. Hau ere nahiko argi dago aspalditik; zuloan daude bost puntugaz Muriedas eta Juventud del Circulo taldeak; Sasikoa 13. dago sailkapenean, eta gaitz izango duten arren, mailari eusteko aukera du oraindik. Horretarako, derrigorra du domekan goizean Atenea taldeari irabaztea; bigarren dago sailkaturik Atenea. Gainera, salbaziorako lau puntuko desabantaila du Sasikoak. Horrez gainera, bost jardunaldietako batean atseden hartu beharko dute durangarrek. Lau partiduetako beste bi beheko taldeen aurkakoak dira, eta horrek apur bat argitzen du Sasikoaren etorkizun iluna. Maiatzeko lehenengo asteburuan Allerru Algeposaren aurkako partidura mailari eusteko aukeragaz heltzea izango da gakoa. Hain zuzen ere, Alerru, Burlades eta Sasikoa dira mailari eusteko borrokan dabiltzan hiru taldeak. ■ A.M.

> Allerru Algeposaren aurkako partidua gakoa izango da

Adituaren txokoa

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea

Denen konpromisoagaz

Denboraldiko azken txanpara heldu gara eta Athletic-i dagokionez, badirudi gasolinaren tankea ia hutsik duela. Orain dela bi hilabete zeukan posizioa sailkapenean ez du galdu, baina atzekoekiko zuen abantaila murriztu egin da; horiek egoeraz konturatu dira, eta gogor datoz atzetik segika. Jokalari garrantzitsu batzuen lesioak, "internazionalen" nekea, egutegi gogorra... Hiru hauek izan daitezke atzera pauso hori emateko zurigorriek izan ditzaketen arrazoiak.

Horrek denak futbolaren barruan daude sartuta. Baina, nekea da arrazoi bakarra? Edo beste kontu batzuek despistatu egin dute plantilla? Adibidez, ezin da onartu hauteskundeak agertzea lehenengo planora. Joaquin Caparrosen jarraipenaren eztabaida, Macuaren isiltasuna, beste plataformaren bat aurkezteko aukera, jokalarien fitxaketak eta bajak, Herreraren fitxaketa… Ados, interes asko egongo dira jokoan, baina horrek ezin du eragin jokalarien, entrenatzaileen eta ingurukoen kontzentrazioan.

Azken urteetako denboraldirik onena egiten dabil Athletic. Europan jokatzeko postuetan darama denbora asko, eta orain ezin dira hortik jaitsi. Kontinenteko txapelketetan parte hartzeak izena eta, batez ere, diru asko ematen du. Horregatik eskatzen dut, "lehoia" ez izan arren, denen konpromisoa, goitik beherainokoa, medioen konplizitateagaz, futbolaz bakarrik hitz egiteko eta taldea animatzeko, azkeneko bultzada emanez, Europan jokatzeko helburua lortzeko.

Mukundik irabazi du Iurretako Hiri Froga

Faboritoen gainetik, lehenengoa izan zen Isaac Mukundi kenyarra helmuga zapaltzen

Euriak baldintzatu egin zuen ikuskizuna. Felix Sanchez

Apirilaren 3an Iurretako Hiri Froga jokatu zen 31. biderrez. Isaac Mukundi kenyarrak nagusitasunez irabazi zuen. Durangoko Bidezabal taldeko Ivan Fernándezek seigarren postuan amaitu zuen lasterketa; hamar kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten maila honetan lehiatu zirenek. Emakumezkoetan, ostera, Dolores Checa izan zen helmuga zeharkatu zuen lehenengoa.

> Pronostikoak betez, emakumezkoetan Checak irabazi zuen

Guztira, 300 federatu inguruk parte hartu zuen proban; gazte mailetako beste horrenbeste lagunek parte hartu zuen, antolatzaileen arabera. ■ A.M.

Durangaldeko lau herri 42. Bizkaiko Herri Artekoan

Asteburuan Iurreta, Atxondo eta Mallabiak ekingo diote txapelketari. Durango 2. fasean sartuko da lehian. Abadiño eta Berriz baja dira.

Asteburu honetan Bizkaiko Herri Arteko Pilota txapelketa hasiko da. Urtero legez, kanporaketa bidezko sistema jarraituz jokatuko da txapelketa; hau da, joaneko eta itzulerako partiduak egongo dira. Esku-huskakoan 34 herrik parte hartuko dute, 2010ean baino bi herri gutxiagok; Durangaldeari dagokionez, Durango, Iurreta eta Atxondok errepikatu egingo dute, eta iaz huts egin ondoren, Mallabia gehitu da txapelketara. Abadiño eta Berriz, ostera, baja dira 2011ko Herri Artekoan.

Iurreta, Atxondo eta Mallabiak asteburu honetan ekingo diote lehiari. Iurretarrek Lekeitioren kontra jokatu beharko dute. Atxondo, ostera, Bermeoren aurka arituko da. Mallabia, berriz, Portugaleteren aurka arituko da, nor baino nor gehiago. Iazko sailkapen postuari esker, Durango bigarren fasean sartuko da lehian. Lehenengo faseko irabazleetariko baten kontra lehiatuko dira durangarrak. Txapelketako finala, Enkarterrietako pilotaleku batean jokatuko da; antolatzaileen arabera, finala ekainaren 26an jokatuko da. Zesta puntan, iaz legez, sei herri arituko dira, tartean, Durango; txapelketan parte hartuko duten gainerako herriak Markina, Berriatua, Lekeitio, Getxo eta Gernika dira. Azken herri horren aurka lehiatuko dira Durangoko zesta-puntalariak. Zesta-puntako finala maiatzaren 28an jokatuko da, Durangon. Egun horretarako, Pilotagazte jaialdia dago iragarrita. ■ A.M.

Eguaztenean aurkeztu zuten 2011ko Bizkaiko Herri Artekoa

> Esku-huskakoan aritzeaz gain, Durangok zesta puntakoan ere parte hartuko du

Aitor Totorikak Baineti salaketa jarriko diola iragarri du

Otsailean pilota mundua uzteko asmoa iragarri arren, Aitor Totorika enpresaria albiste da oraindik. Bainet ekoiztetxeak Masterjai enpresari 480.000 euro zor dizkiola argudiatuta, enpresa horri salaketa jarriko diola iragarri du durangarrak. Enpresariaren berbetan, EPE-Len irudi eskubideak eta publizitatea kudeatzen dituen enpresarekin akordio batera iritsi zen Asegarce utzi zuenean; ekoiztetxearekin sei urteko publizitate kontratua sinatu ei zuen.

> Totorikak dio Bainetek 480.000 euro zor dizkiola Masterjairi

Totorikak adierazitakoaren arabera, bost hilabete daramatza negoziaketetan, eta konponbide batera helduko ez direla ebatzita, salaketa jarriko du Masterjaik. Zorra dela medio, esku-huskako taldearen egitasmoa, oraingoz, bertan behera gelditu dela ere iragarri du. Salaketaz gain, "zaborra aireratuko" duela aurreratu du Totorikak. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Beasain
Domekan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
Zaldua - Baskonia
Domekan, 17:00etan, Solobarrian

SASKIBALOIA
LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA
Tabirako - Escolapios
Zapatuan, 19:00etan, Landakon
LEHENENGO ERREGIONALA
Anbotopeko - Salleko
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

ARETO FUTBOLA
NAZIONAL A MAILA
Sasikoa - Atenea
Domekan, 12:00etan, Landakon

PILOTA
BIHARKO IZARRAK
- Azpiri - Diez / Apezetxea - Telletxea - Victor - Aldape / Arrese - Aretxabaleta
Eguenean, 21:30ean, Mallabiko pilotalekuan

ERRUGBIA
KADETEAK
DRT - La Unica
Zapatuan, 12:00etan, Arripausuetan

laguntzaileak

ABADIÑOKO UDALA · ATXONDOKO UDALA · DURANGOKO UDALA · ELORRIOKO UDALA · MALLABIKO UDALA

LAUHANKA >

Batez ere digestio aparatuan eragiten du, beherakoak eta gonbitoak sortuz

Heldutasunean gaitz honek eragiteko aukera murriztu egiten da

Babestuta eta bakartuta izan beharko dugu txakurra

Parbobirosia: txakurren artean arin zabaltzen den gaixotasuna

Gaixotasun kutsagarria da parbobirosia, batez ere, txakurkumeek pairatzen dutena. Digestio aparatuan eragiten du, eta oraingoz ez dago gaitzaren erremedioa ekartzeko balio duen medikamenturik.



Txakurren artean ohiko eritasuna da parbobirusa, batetik bestera zabaltzeko duen erraztasunagatik. Hondakin fekalen bitartez transmititzen da; kutsatutako txakur batek kaka egiten du, eta beste bat hondakin horietan arakatzen hastean kutsatzen da, parbobirus izeneko birusa jasoz. Pertsonei ez die eragiten.

Batez ere, digestio aparatuan eragiten du, beherakoak eta gonbitoak sortuz. Txakurkumeak izan ohi dira biktima nagusiak; sei astetik aurrera hasten da arriskua. Izan ere, ordura arte txakurrek amaren inmunitatea izaten dute. Behin txertoak hartuta, heldutasunean gaitz hau hartzeko arriskua murriztu egiten da. Ikerketen arabera, arraza batzuek aukera handiagoa dute parbobirusa pairatzeko: dobermanak, pinscherrak, rottweilerrak, springer spaniel ingelesak, pitbull terrier amerikarrak eta artzai txakur alemaniarrak.

Birus erresistentea

Parbobirusa oso erresistentzia handiko birusa da. Sei hilabete ere iraun ditzake lurrean, eta merkatuan dauden garbikari gehienek ezin dute deuseztatu. Kloroa ei da bere kontrako armarik eraginkorrena.

Txakurra kutsatzen denean, hainbat sintoma erakusten hasten da. Larrienetakoa, deshidratazioa da; jateko gogorik ez izatea, nekea eta tenperatura igotzea ere gertatu daitezke.

Erremediorik ez

Gaixotasun honentzako ez dago botikarik. Birusa bere kabuz joaten utzi behar da; dena dela, birusaren indarra murrizteko badago aukerarik. Izan ere, ez badugu txakurra ondo zaintzen, txarrena ere gertatu daiteke. Horregatik, garrantzitsua da deshidratazioari aurre egin eta ura beldur barik ematea. Beherakoak eta gonbitoak ekiditeko badaude medikamentuak, eta bigarren mailako infekzioendako antibiotikoak ere bai. Babestuta eta bakartuta izan beharko dugu txakurrra.

BI LAGUNENTZAKO ETA ZOZKETARIK BAKO

ITSAS BIDAIA OPARI BAUTISTAN

1.900 EUROKO GUTXIENEKO EROSKETA BATEGATIK

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu arteko eskaintza. Instalakuntza librekoelektrotresnen eroskela ez da baliagarria eskaintza honetarako

Zurekin ospatu gura dugu gure 40. urtebetetzea.
Zuen etxebizitzak hornitzen emandako 40 urte.

Zuei eskerrak saririk ohoretsuenak
eman dizkigute urteotan:
Merkataritza Sari Nazionala;
Euskal Merkataritza Saria;
Berrikuntzari Saria.

Benetan eskertzen ditugu aitorpen hauek guztiak,
baina gure SARI NAGUSIA zure konfiantza
izan da eta izango da.

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

Harritu egin gura zaitugu eta horregatik jarri dugu zure esku informazio guztia gure webgunean eta Bezeroaren Arretarako gure telefono zenbakian, ez dezazun inongo zalantzarik izan:

ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAT, ZOZKETARIK GABE,
BETI BEREIZTU IZAN GAITUEN GARDENTASUNAREKIN.

www.bautistamuebles.com ☎ 94 672 77 00

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea, trastelekua. Oso polita. Tel.: 615 007 216

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. Berriztua. Altzairuz hornitua. Tel.: 628 787 835

Berriz. Duplex zoragarria. 118m², 1. sol.: sukaldea, komuna, egongela, despentsa eta balkoia. 2. sol.: 3 logela eta 2 komun. Trasteroa eta garagea. 327.000 euro. Deitu arratsaldez 680907666.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta terraza komunitarioak. Guztiz jantzia, berogailuaren galdara, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera. Altzariz hornituta. 2 logela, egongela, sukaldea, komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik eta barrutik. 179.000 euro. Tel.: 607 715 353

Durango. 94 m2. Herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua. 336.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Martxoaren 8ko kalean. 3 urte. Oso polita. 80 m2. 2 logela, 2 komun, sukalde berria eta saloi ederra. 90m2-ko terraza itzela. Kanpora ematen du. Orientazioa paregabea da. 30m2-ko garajea. Tel.: 637 416 438

Elorrio. 65 m2. Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua. Kokapen ona eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

Mallabia. Baserria salgai (20.000 m2 lurra). Kokapen ona,prezio egokia. 655 702 647 (20:00-22:00 artean)

Mañaria. Bi logela handi, balkoidun egongela eta sukalde handia. Eguzkitsua. Aluminiozko leihoak, elondo egurra. Mendira. Toki lasaia. Garaje itxia. Bi solairu. Etxea guztiz hornitua. 615 765 646.

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 28.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625 705 997

Zaldibar. 67 m2. 3 gela, bainu-gela bat, sukaldea, egongela, balkoia eta igogailua. Tel.: 946 55 03 58

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Pisua salgai edo alokagai (abalarekin). 74 m2. 3 logela. Herriaren erdialdean. Trastelekua. Estreinatzeko. Tel.: 634 457 201

Elorrio. 50 m2-ko atiko berria. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua. Oso polita. Tel: 606 043 835

Zaldibar. Alde Zaharrean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztatua. Estreinatzeko. 660 458 756

Zaldibar. Apartamentu bat alokatzen da bikote batentzako aproposa. 946827369 (20:00etatik aurrera)

ERRENTAN HARTU

Durango. Neska langilea Durango edo Iurretan pisu bila. Tel.: 667 923 891

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil. 94 658 21 91

Iurreta. Lagun bi alokatzeko pisu bila dabiltza Iurretan edo Durangon. Etxea jantzita. Tel.: 675 708 827

Iurreta. 2 gelako etxea alokatu nahi dut. Igogailuarekin. Idoia. Tel.: 665 702 203

OPORRETAKO ETXEA

Ainsa (Huesca). 50 m2ko atiko berria alokagai udaran. Bi gela , komuna, sukaldea eta egongela. Oso polita. Kanpora begira. Telefonoa: 630674864

Conil. 3 logela eta garajea. Aste Santurako eta udarako. Telefonoa: 653 733 457

Ramales (Kantabria). Txaleta Aste Santurako eta udarako. Tel.: 653 733 457

PISUA KONPARTITU

Durango. Pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. Etxe berria eta jantzia. Tel.: 656 771 662

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Elorrio. 350 m2-ko pabilioia salgai edo alokagai, 60 m2-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 457 201

GARAJEAK

SALDU

Durango. Erdialdean kokatua, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia. Prezio negoziagarria.Tel.: 686 734 451

Durango. Garaje itxia Tronperri kalean. 628 787 835

Elorrio. Garaje itxia Berrio-Otxoa kalean. 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje plaza alokairuan herri erdi-erdian. Tel.: 619 187 799

Durango. Garajea alokagai San Inazio auzunean, Produsan. Tel.: 635 743 624 (Iñaki)

Durango. Plateruen plazan garajea alokagai. 65 euro hileko. Tel.: 635 735 759 (Josu)

Elorrio. Garaje itxia alokagai kotxe eta trasteentzako. Nizeto Urkizun. 660 45 87 56.

Elorrio. Kiroldegiko garajean. 2garren solairuan, plaza irekia. 40 euro. 687740449

Elorrio. Anduetxeta kalean, garaje itxia alokagai. Tel.: 605 721 273 (arratsaldez).

ERRENTAN HARTU

Berriz. Garaje itxi bat behar da kotxe bat eta txakur txiki bat izateko. Telefonoa: 94 622 57 24 edo 680 509 532. Izaskun eta jose mari.

Elorrio. Garaje baten bila nabil bi motore sartzeko. Tel.: 659 304 024

Elorrio. Furgoneta bat sartzen den garaje baten bila nabil, alokatzeko. 679 66 63 31

Teknologia

INFORMATIKA

SALDU

Nintendo wii salgai. Osagarri askorekin. Mandoak, nunchakuak, wii fit tabla... Segurtasun kopiak irakurtzen ditu. Tel.: 627 102 512

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxez etxe joaten naiz. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini ... Arin eta merke! 650 172 285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska euskaldun eta ikaslea asteburuetan ostalaritzan lan egiteko prest. Tel.: 646 841 206

Durango. Neska euskalduna zerbitzari lanak egiteko prest. Autoa daukat. 646 822 628.

ETXEKO LANAK

Durango. Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest. 615 716 232.

PERTSONAK ZAINDU

Atxondo. Neska gaztea eta euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten. Esperientzia. Autoa. Tel.: 626 196 885

Durangaldea. Haur hezkuntza bukatu duen neska euskalduna, astelehenetik ostiralera etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. Tel.: 666 197 568.

Durango. Neska euskalduna, arratsaldez edo aste bukaeratan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 635 204 532 (mezua utzi)

Durango. Pertsona nagusien zainketan interna modura, gauetan edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edo beste edozein lanetarako ere prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 679 769 921

Durango. Arratsaldetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Zaindu programa eginda eta diba kooperatiban, tartean, mendekotasunarena. 616 531 309 (ana).

Durango. Garbiketarako, jatetxeetako sukaldeetarako, umeak zaintzeko edo dendari modura lan egiteko prest. Tel.: 619 676 044

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Goizetan 09:30-14:00 eta 18:00-21:00. Esperientzia handia pertsona nagusien zaintzan. Tel.: 681 218 230

Durango. Neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Telefonoa: 695 706 227

Durango. Durangaldean haurrak zainduko nituzke. Neska euskaldun eta arduratsua naiz. Tel.: 646 822 628.

Durango. Garbiketarako, ume edo nagusien zainketarako lan bila nabil. Lanaldi erdi edo osorako. Esperientziarekin. Tel.: 638 437 901

Durango. Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiei lagundu edo umeak zaintzeko, astelehenetik ostiralera, goiz edo arratsaldez. Tel.: 94 658 33 32 /688 676 588

Durango. Erreferentziadun neska pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest, baita etxeko, portaletako zein tabernetako garbiketarako. Lanaldi osoan, interna edo orduka. Tel.: 620 828 579

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Mutil euskalduna matematika eta fisika klaseak emateko prest lehen hezkuntzan eta DBHn. Telefonoa: 635 743 409

Durango. Telekomunikazioetako ingeniari teknikoa (euskalduna) matematika, fisika eta kimika (DBH) klase partikularrak emateko prest. Tel.: 680 581 215. E-maila: alvaroetxarte@gmail.com

Durango. Haur hezkuntza ikasten dabilen mutil euskalduna klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 685 702 177

Durango. 3. mailako zuzenbide ikasle den neska euskaldunak, advanced tituluarekin, ingeleseko zein euskarazko klase partikularrak emateko prest. Tel.: 662 040 671.

Durango. Mutil euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 667 24 51 49.

Durango. Esperientzia zabala duen ingeleseko irakaslea klase partikularrak emateko prest. Ordutegi zabala prezio ezin hobearekin. Tel.: 686 840 627

Elorrio. Esperientziadun neska euskara zein zientzia arloko ikasgaien klase partikularrak emateko prest. Tel.: 679 856 346

Ondarroa. Trikitixa jotzen irakasten dut. Infomazio gehiagorako: 661 12 56 47.

GAINERAKOAK

